

NAFARROA ETORBIDEAN DAUDEN SEI MERKATARITZA LOKAL SALTZEA

1. HELBURUA

Aurtengo urtarrilean egindako enkantean bete gabe geratu ondoren, Udalak Nafarroa etorbidea 4 eta 6ko etxabeetan (AE 80.-ZERRAJERA 2 eremua) dauden 6 merkataritza lokal saldu behar ditu zuzenean. Horien deskribapena eta ezaugarriak hauek dira:

1 zk.ko lokala

Nafarroa etorbidea 4ko etxabeetan dagoen merkataritza lokala.

Azalera erabilgarria da 56,58 m².

Mugak: Iparrean, Nafarroa etorbidea; Hegoan, 3 zk.ko lokala, 2 zk.ko lokala eta Mendebaldean, Nafarroa etorbidea 4ko etxeen eraikinaren komunikazio bertikaleko nukleoa.

Eraikineko elementu erkideetan %0,521eko partizipazio kuota dagokio.

Destinoa: Ez du destino zehatzik, baina ez da onartzen ostalaritza erabilerarik aldagai batean ere.

Merkataritza lokala libre dago karga eta grabamenetatik.

Bergarako Jabetzaren Erregistroan dago inskribatuta, 707 tomoa, 417 liburua, finka zenbakia 21.533, eta hortik egin behar da zatikapena, dagokion salerosketa eskritura sinatu baino lehen.

2 zk.ko lokala

Nafarroa etorbidea 4ko etxabeetan dagoen merkataritza lokala.

Azalera erabilgarria da 92,50 m².

Mugak: Iparrean, Nafarroa etorbidea; Hegoan, 3 zk.ko lokala; Ekialdean, 4 zk.ko lokala eta Mendebaldean, zati batean 1. zk.ko lokala eta beste zati batean 3 zk.ko lokala.

Eraikineko elementu erkideetan %0,852ko partizipazio kuota dagokio.

Destinoa: Ez du destino zehatzik, baina ez da onartzen ostalaritza erabilerarik aldagai batean ere.

Merkataritza lokala libre dago karga eta grabamenetatik.

Bergarako Jabetzaren Erregistroan dago inskribatuta, 707 tomoa, 417 liburua, finka zenbakia 21.533, eta hortik egin behar da zatikapena, dagokion salerosketa eskritura sinatu baino lehen.

3 zk.ko lokala

Nafarroa etorbidea 4ko etxabeen dagoen merkataritza lokala.

Azalera erabilgarria da 200,18 m².

Mugak: Iparrean, zati batean Nafarroa etorbidea 4ko etxeen eraikinaren komunikazio bertikaleko nukleoarekin, zati batean 1 zk.ko lokalarekin eta zati batean 2 zk.ko lokalarekin; Hegoan, Txaeta kalea 1-etxabeari dagokion lokala; Ekialdean, zati batean 2 zk.ko lokalarekin eta zati batean 7 zk.ko lokalarekin eta Mendebaldean, Aprendices kalea.

Eraikineko elementu erkideetan %1,843ko partizipazio kuota dagokio.

Destinoa: Lokal hau okindegia, kafetegia, dastaleku edo antzeko denda bat egiteko erabiliko da, betiere eguneko ordutegian, Eusko Jaurlaritzak ezarritako mugen arabera, edo bestela ostalaritza ez den beste edozein erabilerarako.

Merkataritza lokala libre dago karga eta grabamenetatik.

Bergarako Jabetzaren Erregistroan dago inskribatuta, 707 tomoa, 417 liburua, finka zenbakia 21.533, eta hortik egin behar da zatikapena, dagokion salerosketa eskritura sinatu baino lehen.

4 zk.ko lokala

Nafarroa etorbidea 6ko etxabeen dagoen merkataritza lokala.

Azalera erabilgarria da 94,85 m².

Mugak: Iparrean, Nafarroa etorbidea; Hegoan, 7 zk.ko lokala; Ekialdean, zati batean 5 zk.ko lokala eta zati batean 7 zk.ko lokala eta Mendebaldean, 2. zk.ko lokala.

Eraikineko elementu erkideetan %0,881eko partizipazio kuota dagokio.

Destinoa: Ez du destino zehatzik, baina ez da onartzen ostalaritza erabilerarik aldagai batean ere.

Merkataritza lokala libre dago karga eta grabamenetatik.

Bergarako Jabetzaren Erregistroan dago inskribatuta, 707 tomoa, 417 liburua, finka zenbakia 21.534, eta hortik egin behar da zatikapena, dagokion salerosketa eskritura sinatu baino lehen.

5 zk.ko lokala

Nafarroa etorbidea 6ko etxabeen dagoen merkataritza lokala.

Azalera erabilgarria da 53,00 m².

Mugak: Iparrean, Nafarroa etorbidea; Hegoan, 7 zk.ko lokala; Ekialdean, Nafarroa etorbidea 6ko etxeen eraikinaren komunikazio bertikaleko nukleoa eta Mendebaldean, 4 zk.ko lokala.

Eraikineko elementu erkideetan %0,492ko partizipazio kuota dagokio.

Destinoa: Ez du destino zehatzik, baina ez da onartzen ostalaritza erabilerarik aldagai batean ere.

Merkataritza lokala libre dago karga eta grabamenetatik.

Bergarako Jabetzaren Erregistroan dago inskribatuta, 707 tomoa, 417 liburua, finka zenbakia 21.534, eta hortik egin behar da zatikapena, dagokion salerosketa eskritura sinatu baino lehen.

6 zk.ko lokala

Nafarroa etorbidea 6ko etxabea dagoen merkataritza lokala.

Azalera erabilgarria da 35,56 m².

Mugak: Iparrean, Nafarroa etorbidea; Hegoan, 7 zk.ko lokala; Ekialdean, Nafarroa etorbidea 8an dagoen etxeen eraikinetik bereizten duen espazio publikoa eta Mendebaldean, Nafarroa etorbidea 6ko etxeen eraikinaren komunikazio bertikaleko nukleoa.

Eraikineko elementu erkideetan %0,492ko partizipazio kuota dagokio.

Destinoa: Ez du destino zehatzik, baina ez da onartzen ostalaritza erabilerarik aldagai batean ere.

Merkataritza lokala libre dago karga eta grabamenetatik.

Bergarako Jabetzaren Erregistroan dago inskribatuta, 707 tomoa, 417 liburua, finka zenbakia 21.534, eta hortik egin behar da zatikapena, dagokion salerosketa eskritura sinatu baino lehen.

2. LOKALEN DESTINOA

Interesdunek kontuan hartu behar dute **lokalen** deskribapenean berariaz jasotzen dela horien **destinoa**.

1, 2, 4, 5 eta 6 zk.ko lokalek ez dute destino zehatzik, baina horietan ezingo da jarri ezein ostalaritza jarduerarik aldagai batean ere

3 zk.ko lokalari dagokionez, aukera izango du okindegia, kafetegia, dastalekua edo antzeko denda izateko, eguneko ordutegiaz, edo bestela ostalaritza ez den beste edozein erabilera.

3. LOKALEN PREZIOA

Hona hemen lokalen salmenta prezioak (BEZ edo OEZ sartu gabe):

LOKALA	GUTXIENeko LIZITAZIO OINARRIA (HIZKIZ)	OINARRIA (KOPURUETAN)
1	EHUN MILA EHUN ETA BERROGEITA SEI EURO ETA HIRUROGEI ZENTIMO.	100.146,60 €
2	EHUN ETA HIRUROGEITA BAT MILA ZORTZIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMABOST EURO	161.875,00 €
3	HIRUREHUN ETA HOGEITA HAMAZORTZI MILA HIRUREHUN ETA LAU EURO ETA HOGEI ZENTIMO	338.304,20 €
4	EHUN ETA HIRUROGEITA BOST MILA BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA ZAZPI EURO ETA BERROGEITA HAMAR ZENTIMO.	165.987,50 €
5	LAUROGEITA HAMAHIRU MILA ZORTZIEHUN ETA HAMAR EURO	93.810,00 €
6	HIRUROGEITA LAU MILA HIRUREHUN ETA HIRUROGEITA HIRU EURO ETA HIRUROGEI ZENTIMO	64.363,60 €

4. EROSTeko DAGOEN DENBORA EPEA

Lokal horien zuzeneko salmenta sustatuko du Udalak, SEI HILEKO epe batean. Hau da, lokal horiek salgai egongo dira **2010eko uztailaren 30era arte**.

5. INFORMAZIOA LORTZEA ETA LOKALAK BISITATZEA

BAZen lortu daiteke lokalei buruzko informazioa (Maisu Arano pasealekua 8), Udalaren web orrian (www.arrasate-mondragon.org), edo 943252000 telefonora deitu.

Lokalak bisitatzeko, interesdunek hitzordua eskatu behar dute BAZen (943250000).